




VILLA BEGOÑA
D MAILA

KRISTINA INFANTA 11



Egileak eta data: Eduardo Lagarde eta Luis Martinez Ubago; 1928

Deskribapena

Txalet parekatuan (Beatriz Infanta 14rekin) kokaturiko etxebizitza familiarreko eraikina. Erdisotoa, behe oina eta bi goi oin ditu. Lau isuriko estalkia, fatxada osoaren goialdea hartzen duen eta aldameneko eraikineko dorreak bakarrik eteten duen teilatu hegala dekoratuarekin errematatua. Behe oinean eta lehen oinean hormatal entokatuak, eta bigarren oinean zeihar aparailuan zeramikaz estaliak. Inpostez, bao azpadurez, eta hareharrizko kateatuz mugatuak daude. Jatorrizko proiektu komuna Beatriz Infanta 14rekin.

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak; teilatu hegala; zeramikazko estaldura.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.